DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2025

OSASUNA

- Osasun-arloko ikerketa- eta garapen-proiektuetarako laguntzak 2
- Arriskuak eta kalteak prebenitu eta gutxitzeko proiektuak egiteko eta jarduera-eremu horietan jokabide osasungarriak sustatzeko laguntzak 4
- GIB/HIESA, C hepatitisa (CH) eta sexu-transmisiozko infekzioak prebenitzera eta kontrolatzera bideratutako jarduerak eaen garatzen dituzten irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakundeentzako laguntzak 6
- Euskal autonomia erkidegoan gaixotasunen bat duten pertsonen eta haien familien bizi-kalitatea hobetzea xede duten irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko elkarteei zuzendutako laguntzak 8
- Toki-esparruan osasuna sustatzeko dirulaguntzak 10
- Elkarteei eta kooperatibei zuzendutako laguntzak, ikasleen artean jarduera fisikoa sustatzera eta sedentarismoa murriztera bideratutako partaidetza-proiektuak garatzeko 12
- Osasun-arloko profesionalak prestatzeko bekak eta laguntzak 14
- Euskal autonomia erkidegoko osasun-zientzietako espezialitateetan egoiliarren prestakuntza-aldian dauden profesionalen kanpoko errotazioetarako laguntzak 16
- Euskadiko osasun-sistemako langileek agindutako tratamendu medikoak betetzea errazteko laguntzak, 2024ko eta 2025eko urteetakoak 18

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Osasun-arloko ikerketa- eta garapen-proiektuetarako laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2025eko uztailaren 22koa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez osasun-arloko ikerketa- eta garapen-proiektuetarako laguntzak emateko egiten den deialdiaren oinarriak ezartzen baitira 2025erako.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

Deialdia:

AGINDUA, 2025eko uztailaren 22koa, Osasuneko sailburuarena (EHAA, 153.zk, 2025/08/14koa)

Emate-Ebazpena:

1. lerroa: “Ikerketa sanitarioko jarduerak sustatzea” (EHAA, 9.zk, 2026/01/15koa)
2. lerroa: “Ikerketa sanitarioko jarduerak areagotzea” (EHAA 250.zk, 2025/12/29koa)
3. lerroa: “Osasunari buruzko ikerketa estrategikoa bultzatzea” (EHAA 9.zk, 2026/01/15koa)

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu honen xedea da osasun-arloko ikerketa- eta garapen-proiektuetarako laguntzak emateko egiten den deialdiaren oinarriak ezartzea 2025erako, publikotasunaren, gardentasunaren, konkurrentziaren, objektibotasunaren, berdintasunaren eta diskriminazio-ezaren printzipioei jarraikiz, bai eta laguntzok ematen dituen administrazioak finkatutako helburuak betetzeko efikaziari eta baliabide publikoak esleitu eta erabiltzeko efizientziari erreparatuta ere.

Agindu honetan adierazitako jarduketen azken helburua da pertsonen osasuna eta osasun-sistemaren jarduera hobetzea, bai eta garapen sozioekonomikoari laguntzea ere, osasun-laguntza eta bizi-kalitatea hobetuko duten produktuak, zerbitzuak eta prozesuak garatzearen bidez.

2025eko deialdiak hiru laguntza-ildo desberdin biltzen ditu, honako helburu hauekin: osasun-sistemaren ikerkuntza indartzea, I+Gko belaunaldi-erreleboa, RIS3ren hazkundea Osasun Pertsonalizatuaren arloan, I+Gko jardueretarako dedikazioa handitzea eta Euskadiko osasun-sisteman ikerketa-kultura indartzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Eskaeren guztizko kopurua (1., 2. eta 3. lerroak): 166. Esleitutako proiektuen guztizko kopurua: 69.

« Ikerketa sanitarioko jarduerak sustatzea » izeneko 1. lerroan:

- Baliozko eskaeren kopurua: 94.
- Esleitutako proiektuen kopurua: 17, eta laguntzen lerro honen aurrekontuaren %35,29 bideratu da Talde gazteak sustatzea susperraldian dauden taldeen sustapenera.

«Ikerketa sanitarioko jarduerak areagotzea» izeneko 2. lerroan:

- Baliozko eskaeren kopurua: 13.
- Esleitutako proiektuen kopurua: 13.

«Osasunari buruzko ikerketa estrategikoa bultzatzea» izeneko 3. lerroan:

- Baliozko eskaeren kopurua: 59.
- Esleitutako proiektuen kopurua: 39.

Esleitutako 69 proiektuetatik 42tan, emakumeak ziren ikertzaile nagusiak (diruz lagundutako proiektuen % 60,87).

Erabilgarri zeuden funtsen % 100 exekutatu da.

Hautatutako proiektuek, kalitate zientifiko altua edukitzeaz gain, inpaktu sozial handiko gai biomedikoak edo oro har osasun-arlokoak jorratzen dituzte, eta osasun-sistemaren jarduna nahiz herritarrei ematen zaien arreta hobetzeko xedea dute. Proiektuek honako eremu hauek hartzen dituzte: diagnostikoa eta/edo pronostikoa; gaixotasunen bilakaerari eta/edo kontrolari lotutako faktoreak; hainbat gaixotasunen tratamendu terapeutikoa (neurodegeneratiboak, besteak beste); medikuntza pertsonalizaturako biomarkatzaileak eta teknologiak; gaixotasunen arrisku-faktoreen identifikazioa; iragarpen-ereduak; aplikatutako adimen artifiziala; eraginkortasunaren eta kostuaren ebaluazioa, eraginkortasuna, inpaktua edo esku-hartzeen ezarpenaren ebaluazioa; zahartzea; patologiei buruzko hainbat alderdi, hala nola minbizia, gaixotasun arraroak, gaixotasun neurodegeneratiboak, obesitatea eta diabetesa; gailu medikoak; medikuntza birsortzailea eta terapia aurreratuak.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Finantzatutako osasun-arloko ikerketa-jarduera sustatzeko I+G proiektuen kopurua	20	17
Ikerketa-jardueraren areagotze-kopurua	5	13
RIS3 estrategiaren barruan zenbat proiektu eta zenbat lankidetza- eta garapen-ekintza	25	39
I+G proiektuetako ehuneko zenbatean ikertzaile nagusia emakumezkoa	% 45	% 60,87

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Arriskuak eta kalteak prebenitu eta gutxitzeko proiektuak egiteko eta jarduera-eremu horietan jokabide osasungarriak sustatzeko laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2025eko azaroaren 4koa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez laguntza ekonomikoak emateko deialdia egiten baita arriskuak eta kalteak prebenitu eta gutxitzeko proiektuak egiteko eta jarduera-eremu horietan jokabide osasungarriak sustatzeko 2025eko ekitaldian.

18/2024 DEKRETUA, ekainaren 23koa, lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituena eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituena.

319/2024 DEKRETUA, urriaren 29koa, Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena.

8/1997 LEGEA, ekainaren 26koa, Euskadiko Antolamendu Sanitarioarena.

1/2016 Legea, apirilaren 7koa, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoa.

Euskadiko Adikzioen VIII. Plana 2023-2027

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

Araua

https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/06/2403015e.shtml

https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?ed2024005122

https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd1997003850

https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2016/04/1601527e.shtml

https://www.euskadi.eus/euskadiko-adikzioen-viii-plana/web01-a2adik/eu/

Deialdia

https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/11/2504785e.shtml

Ebazpena

https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/12/2505530e.shtml

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntza programa hauen bidez osasun publikoaren eta adikzioen eremuan 2025. urtean irabazi asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakundeak arriskuak eta kalteak prebenitu eta gutxitzeko proiektuak egitea da, bai eta jarduera-eremu horietan jokabide osasungarriak sustatzea ere. Programa honen bidez lortu nahi diren helburu orokorrak hurrengo hauek dira:

a) Pertsonen ongizatea, arrisku-faktorerik eza eta osasun-arloko ekitatea sustatzeko sektore arteko eta erakunde arteko ekintzak mantendu eta sustatzea.
b) Euskadiko Adikzioen VIII. Planaren (2023-2027) helburuetan eta jarduketa-ildoetan hobekien txertatuta dauden programak eta proiektuak mantentzea.

c) Premia berriak azalaraztea, eta, behar horiek kontuan hartuta, horiei erantzungo dieten proiektu berriak bultzatzea.

d) Proiektuak eta programak hobetzen laguntzea, eta, horretarako, esku hartzeko protokoloen diseinu- eta sistematizazio-prozedurei jarraitzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Gizarte-ekimeneko erakundeek arriskuak eta kalteak prebenitzeko eta gutxitzeko proiektuak egiteko, bai eta jarduera-eremu horietan jokabide osasungarriak sustatzeko proiektuak burutzeko 1.118.500 euroko aurrekontua dago. Aurrekontuaren %100 gauzatu da. Diru hori hurrengo proiektuak finantzatzeko erabili da:

- Ausazko jokoarekiko eta substantziarik gabeko beste adikzio batzuekiko adikzioa prebenitzea eta tratatzea helburu duten proiektuak diruz laguntzeko esleipen ekonomikoa: 236.000 euro, hau da, arriskuak eta kalteak prebenitzeko eta murrizteko proiektuak egiteko eta jarduera-eremu horietan jokabide osasungarriak sustatzeko aurrekontuan jasotako guztizko kopuruaren % 21,10.
- Arriskuak eta kalteak prebenitzeko eta murrizteko proiektuak egiteko eta jarduera-eremu horietan jokabide osasungarriak sustatzeko gainerako esleipen ekonomikoa: 882.500 €, hau da, % 78,90.

Adierazleen hurrengo atalean ikus daitekeenez, 2025ean proiektu gehiago gauzatu dira aurreikusitako eta iazkoarekin alderatuta; 2024an 75 proiektu finantzatu ziren eta 2025ean, berriz, 90. Gainera, erakunde onuradunen kopurua handitu egin da; iaz 35 ziren eta 2025ean 38.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Gizarte-ekimeneko erakundeen kopurua	35	38
Proiektuen kopurua	75	90

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

GIB/HIESA, C hepatitisa (CH) eta sexu-transmisiozko infekzioak prebenitzera eta kontrolatzera bideratutako jarduerak eaen garatzen dituzten irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakundeentzako laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2025eko maiatzaren 13koa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baitira irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakundeei GIB/ hiesa, C hepatitisa (CH) eta sexu-transmisiozko infekzioak (STI) prebenitzeko eta kontrolatzeko programak EAEn gauzatzeko laguntzak emateko deialdiaren oinarriak.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

Deialdia:
AGINDUA, 2025eko maiatzaren 13koa, Osasuneko sailburuarena
(https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/05/2502167e.shtml)
Emate-ebazpena:
EBAZPENA, 2025eko irailaren 30ekoa, Osasuneko sailburuordearena
(https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/10/2504264e.shtml)

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakundeek garatutako jarduerak, administrazio publikoek egindakoekin batera, ezinbesteko tresnak dira GIBaren, sexu-transmisiozko infekzioen eta C hepatitisaren transmisioa prebenitzeko eta eramaileen egoera hobetzeko.

Hona hemen laguntza horien jomugan daudenak:

a) Gizonekin sexua daukaten gizonei zuzendutako proiektuak, kolektibo horretan gaur egun duten garrantzi epidemiologikoa dela eta.
b) GIBari, STIei eta HCei dagokienez egoera zaurgarrian dauden beste kolektibo batzuei zuzendutako proiektuak; kasurako, etorkinak, drogak bide parenteraletik hartzen dituztenak, prostituzioan aritzen direnak eta, oro har, gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonak.
c) GIBaren, CHaren eta STI infekzioen diagnostiko goiztiarrera bideratutako proiektuak.
d) GIBa duten pertsonei babes psikologikoa eta soziala emateko proiektuak.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2025eko ekitaldirako, diruz lagundu beharreko erakundeen kopurua ezarri zen adierazle gisa, eta guztira 16 izan ziren. Azkenean, 17 erakundek jaso zuten dirulaguntza, eta, beraz, aurrekontu-programan ezarritako aurreikuspenak gainditu ziren. Deialdia bere osotasunean ebatzi zen, % 100eko esleipenarekin eta 300.000 euroko zenbatekoarekin.

Deialdira aurkeztutako proiektu guztiak, 37 proiektu, dirulaguntzen onuradunak izan ziren. Helburuak nori zuzenduta zeuden arabera, proiektuak honela banatu ziren:

Sexua gizonekin duten gizonak (SGG) ..... % 24
Prostituzioan aritzen diren pertsonak (PAP) ..... % 19
Drogak bide parenteraletik hartzen dituzten pertsonak (DBPP) ..... % 24
Gizarte-bazterketako arriskuan edo egoeran dauden pertsonak,
eta/edo migrazio irregularreko egoeran daudenak ..... % 6

Beste helburu batzuen arabera, proiektuen banaketa honako hau izan zen:

Sustapena eta diagnostiko goiztiarra ..... % 11
Laguntza psikologikoa eta/edo emozionala, psikoterapia
edo psikohezkuntza-tailerrak ..... % 16

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Diru laguntza jaso zuten elkarte kopurua	16	17

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Euskal autonomia erkidegoan gaixotasunen bat duten pertsonen eta haien familien bizi-kalitatea hobetzea xede duten irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko elkarteei zuzendutako laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2025eko ekainaren 3koa, Osasuneko sailburuarena, EAEko gaixotasunen bat duten pertsonen eta haien familien bizi-kalitatea hobetzea xede duten irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko elkarteentzako 2025eko laguntzak arautu eta haietarako deialdia egiten duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

Deialdia:

AGINDUA, 2025eko ekainaren 3koa, Osasuneko sailburuarena

(euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/06/2502844e.shtml)

Emate-ebazpena:

EBAZPENA, 2025eko urriaren 23koa, Osasuneko eta Eraldaketa Digitaleko sailburuordearena

(euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/11/2504702e.shtml)

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Dirulaguntza lerro honen helburu nagusia gaixotasunen bat duten pertsona-kolektiboen eta haien familien ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzera bideratutako jarduerak finantzatzen laguntzea da. Zehazki:

- Gaixotasunen bat duten pertsonen kolektiboei eta haien familiei trebetasunak eta baliabideak garatzen laguntzea, beren burua zaintzeko ahalmena maximizatzeko eta beraien autonomia areagotzeko.
- Kaltetutako pertsonen behar soziosanitarioetan laguntzea eta horiek bideratzea, ikuspegi osasungarri batetik, osasuna sustatze ikuspegitik eta helburu komunitarioekin.
- Gaixotasunari buruzko ezagutza eta informazioa areagotzea kaltetuetako pertsonetan eta haien familietan, eta gaixotasunaren arrisku-faktoreei eta osasun-jokabide egokienei buruzkoa.

Gaixotasunen bat duten pertsonek osatutako irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko elkarteak patologia bera duten pertsonek osatzen dituzte eta honako helburu hauek dituzte: gaixotasuna eta haren tratamenduak hobeto ezagutzea, elkarrekiko laguntza sustatzea eta herritar guztiei gaixotasunaren prebentzioari buruzko informazioa ematea, herritarren ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzen laguntzeko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2025eko ekitaldirako, programa-adierazle gisa 65 proiektu diruz laguntzea aurreikusi zen. Egikaritze-fasean, guztira 85 proiektu onartu eta finantzatu ziren; hortaz, aurrekontu-programan ezarritako aurreikuspenak gainditu egin ziren. Deialdia osorik ebatzi zen, %100eko esleipenarekin eta 300.000 euroko zenbateko globalarekin.

Hainbat patologia dituzten paziente eta senideei laguntzeko jarduerak diruz lagundu dira, hala nola:

- minbizia
- diabetesa
- nahasmendu mentalak eta portaerazkoak
- nerbio-sistemaren eta sistema osteomuskularraren nahasmenduak
- elikadura-nahasmenduak, etab.

Honako hauek izan dira diruz lagundutako jarduera nagusiak:

- gaixoentzako eta familiartekoentzako autolaguntza eta babes-taldeak
- laguntza psikologiko eta soziala, familia-unitateko pertsona guztien bizi-kalitatea handitzeko
- mantentze funtzionaleko jarduerak: taldekoak eta banakakoak
- pazienteentzako eta familiartekoentzako prestakuntza-hitzaldiak, aholkularitza
- gaixotasunei buruzko informazio eta sentsibilizazioa
- informazio-gida espezifikoen prestaketa

Elkarteek aurkeztutako memorietan zehazten dira dirulaguntzen emaitzak.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Diruz lagundutako proiektuak	65	85

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Toki-esparruan osasuna sustatzeko dirulaguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2025eko ekainaren 3koa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baitira 2025eko ekitaldian Euskal Autonomia Erkidegoko toki-esparruan osasuna sustatzeko partaidetza-proiektuak garatzeko dirulaguntzak emateko deialdiaren oinarriak.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

Deialdia:
AGINDUA, 2025eko ekainaren 3koa, Osasuneko sailburuarena
(https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/09/2503911e.shtml)
Emate-ebazpena:
EBAZPENA, 2025eko abenduaren 1ekoa, Osasuneko eta Eraldaketa Digitaleko sailburuordearena (https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/12/2505390e.shtml)

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntzen lerro honen helburu nagusia hau da, laguntza ekonomikoen deialdia egitea tokiko ekintza komunitarioa sendotzeko, eta osasuna sustatzeko proiektuak garatzeko, non eta helburu komunitarioak izanez, asmoei, arazoei edo interesekoak diren gaiei erantzuna ematen dutela komunitatearen beharrei.
Toki-erakundeei, tokiko erakunde autonomoei eta tokiko merkataritza-sozietateei zuzendutako dirulaguntzak dira.
Laguntza hauen helburua 2025ean hurrengoetara zuzendutako partaidetza-proiektuak finantziatzea izan zen:

a) Espazio berean bizi direnen bizi-baldintzak hobetzea.
b) Osasuna eta ongizatea hobetzeko prozesuetan ekintza indibidualeko eta kolektiboko gaitasunak sustatzea.
c) Loturak eta gizarte-kohesioa indartzea, kalte beratasun-egoeran dauden kolektiboak barne hartuta.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2025ean, programaren ebaluazioan kontuan hartu beharreko helburu adierazlea 40 proiektu diruz laguntzea izan zen. Lortutako kopuruek, diruz lagundutako 43 proiektuek, aurrekontu-programari zegokion aurreikuspenen betetze-maila lortu zuten, deialdiaren % 100a esleitu zelarik, 250.000 euro, alegia.

Honako hauek izan dira diruz lagundutako jarduera nagusiak:

- Partaidetza-proiektuak egitea, bizikidetza-eremuko biztanleen bizi-baldintzak hobetzeko.
- Banakako nahiz taldeko ekintza-gaitasunak indartzea, osasuna eta ongizatea hobetzera bideratutako prozesuetan.
- Loturak eta gizarte-kohesioa indartzea, kalte beratasun-egoeran dauden kolektiboak barne egonda.

Laburbilduz, bidalitako memorien ebaluazioetan oinarrituz, esan daiteke dirulaguntza hauek eta beraiei lotutako emaitzak positiboak izan direla.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Diruz lagundutako proiektuak	40	43

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Elkarteei eta kooperatibei zuzendutako laguntzak, ikasleen artean jarduera fisikoa sustatzera eta sedentarismoa murriztera bideratutako partaidetza-proiektuak garatzeko

2.- Araua

AGINDUA, 2025eko irailaren 30ekoa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez elkarte eta kooperatibei zuzendutako laguntzen deialdia egiten baita, Euskal Autonomia Erkidegoko ikasleen jarduera fisikoa sustatzera eta sedentarismoa murriztera bideratuta dauden partaidetza-proiektuak gauza ditzaten 2025-2026ko ikasturtean.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

Deialdia:

AGINDUA, 2025eko irailaren 30ekoa, Osasuneko sailburuarena

(https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/10/2504553e.shtml)

Emate-ebazpena:

EBAZPENA, 2025eko abenduaren 22koa, Osasuneko eta Eraldaketa Digitaleko sailburuordearena (https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2026/01/2600200e.shtml)

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu honen helburua da osasuna sustatzea eskola-mailako jarduketetan eta sektore sanitariokoak ez diren gainerako eremuetan.

Dirulaguntza hauen xedea jarduketa hauetako bat edo batzuk niltzen dituzten proiektuak finantzatzea da:

a) Partaidetza-proiektuak gauzatzea eskola-bideak sortu eta dinamizatzeko, hiri-espazioek mugikortasun aktibo eta segururako eskaintzen dituzten aukerak baliatuz.

   Eskola-bidetzat joko dira ibilbide zehatzak, aurrez ezarriak eta markatuak, eskola-umeek erabil ditzaketenak ikastetxeetako joan-etorriak modu aktiboan (oinez, gurpil-oholez, bizikletaz eta antzekoak erabiliz), seguruan eta autonomoan egiteko, eta, hala, espazio publikoaren erabilera eta gozamena berreskuratzeko.

b) Partaidetza-proiektuak gauzatzea, ikastetxeetako jolastokiak ikasteko, jolasteko eta mugitzeko espazio inklusibo bihurtzeko eta/edo dinamizatzeko, baita kalitatezko harremanak eta esperientziak eraikitzeko ere, eskola-ordutegian zein hortik kanpo, berdintasunean eta kultura, etnia, adin, sexu, desgaitasun eta bestelako aniztasunarekiko errespetuan oinarrituta eta ikasleen eta haien familien behar eta interesetara egokituta.

   Proiektu horiek beharko dute:

   1.- Ikastetxeko ikasle guztien jolas-aukerak, jarduera fisikoa eta elkarbizitza handitu.

   2.- Neskek jarduera fisikoa egitea berariaz sustatu, jarduera-ezaren ratioa handiagoa baita kolektibo horretan.

3.- Mugimendua eta jolas aktiboa sustatu ikasle helduenen edo bigarren hezkuntzako ikasleen artean, adin-tarte horretako sedentarismorako joera saiheste aldera.

c) Eskola-orduetatik kanpo familian jarduera fisikoa erregularki egitea bultzatzeko jarduerak sustatzea, hala nola mendi- edo bizikleta-irteerak, ibilaldiak irristailuetan edo familian egiteko jolas-jarduerak.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2025ean, programaren ebaluazioan kontuan hartu beharreko helburu adierazlea 25 proiektu diruz laguntzea izan zen. Laguntza hauek ikasturtearen iraupen bera dute eta 2026ko uztailean bukatuko dira, diruz lagundutako proiektuaren justifikazioa aurkezten denean.

2025ean, 152 eskaera izapidetu ziren, eta 63 proiektuei laguntza esleitzea ebatzi zen. Hoietariko % 19,05ak ekintza bat baino gehiago zuen barne. 218.100,00 euro aldez aurretik ordaindu dira, esleitutako zenbatekoaren % 75a.

2024-2025 ikasturteko deialdia 2025ean bukatu zen, justifikazioak aurkeztu eta esleitutako zenbatekoaren % 25,791 ordainduz (75.000,00 euro) Bidalitako memorien ebaluazioetan oinarrituz, esan daiteke dirulaguntza hauek eta beraiei lotutako emaitzak positiboak izan direla.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Diruz lagundutako proiektuak	25	63

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Osasun-arloko profesionalak prestatzeko bekak eta laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2025eko uztailaren 16koa, Osasuneko sailburuarena, arlo sanitarioko profesionalak 2025ean prestatzeko bekak eta laguntzak emateko oinarriak ezartzeko eta deialdia egiteko dena

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

Deialdia:
AGINDUA, 2025eko uztailaren 16koa, Osasuneko sailburuarena (EHAA, 174. zk., 2025/09/15ekoa)
Emate-ebazpena:
EBAZPENA, 2025eko azaroaren 19koa, Osasuneko eta Eraldaketa Digitaleko sailburuordearena (EHAA, 241. zk., 2025/12/15)

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

EAEko osasun-arloko profesionalak prestatzeko banakako laguntzak eta bekak ematea. Prestakuntza-jarduerak 2025ean hasi behar dira, modalitate hauetakoren batean:

a) Estatuko unibertsitate-ikastegiek edo Osasun Ministerioaren mendeko osasun-institutuek, edo autonomia-erkidegoen mendeko osasun-eskolek emandako graduondoko ikastaroetan parte hartze; edo aipatutako erakundeek ematen ez badituzte ere, hitzarmen baten bitartez halako izaera lortzen duten ikastaroetan parte hartzea, baldin eta unibertsitatearen graduondoko titulu propioren bat sortzen badute.
b) Atzerriko unibertsitateek emandako graduondoko ikastaroak egitea, Sailarentzat estrategikoak diren arloetan konpetentzia aurreratuak eskuratzera bideratuta badaude.
c) Atzerriko zentro sanitarioetan edo ikerketa sanitarioko zentroetan prestakuntza-egonaldiak egitea, osasun-zientziekin lotutako arlo guztietan ezagutzak eta trebetasunak areagotzera bideratutako prestakuntza-programa indibidualizatuak egiteko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2025eko ekitaldirako deialdiaren zenbatekoa 180.000 eurokoa izan zen (108.000 euro 2025eko aurrekontuaren kargura eta 72.000 euro 2026rako konpromiso-kredituen kontura). Deialdia ebatzi ondoren, 159409,74 euro esleitu ziren, aurrekontuan jasotakoaren % 88,56.
Guztira, 51 beka eta laguntza eman dira, eta guztira 125 eskabide aurkeztu dira. 46 laguntza eman ziren Estatuko unibertsitate-zentroetan graduondoko ikastaroak egiteko, eta 5 laguntza atzerriko zentroetan prestakuntza-egonaldiak egiteko.

Lurraldearen eta urtearen araberako banaketa honako hau da:

Lurraldea	Onuradunen kop	2025eko ekialdea	2026ko ekialdea	Guztira
Araba	6	8255,36	5503,58	13.758,94
Bizkaia	32	65.229,29	43.486,19	108.715,48
Gipuzkoa	13	22161,19	14.774,13	36.935,32
Guztira	**51**	**95.645,84€**	**63.763,90€**	**159.409,74€**

68 eskaera ukatu dira. 6k atzera egin dute; 1ek bikoiztasunagatik eta 5ek prozeduragatik. Ukatutako eskabideen artean, adierazi behar da eskaera batzuek hainbat arrazoi dituztela ez betetzeko. Bestalde, 20 gora jotzeko errekurtso aurkeztu dira (18 ezetsi dira eta 2 zati batean baietsi dira).

Deialdia urte anitzekoa denez, diruz lagundutako prestakuntza-jarduera 2025eko ekitaldian hasi behar da, baina 2026an amaitu daiteke. Jasotako azken justifikazioak oraindik ez dira nahikoak aurreikusitako maila lortu den ala ez egiaztatzeko.

Eskatutako laguntzen kopurua aurreikusitakoa izan ez bada ere, osasun-arloko langileen prestakuntzak beti laguntzen du:

- Bilakaera zientifikoa eta teknologikoa kontuan hartuta, profesionalen ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak eguneratzea eta hobetzea ezagutzaren aurrerapenaren aurrean.
- gizartearen eta osasun-sistemaren eskaerei eta beharrei erantzutea.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Atzerriko zentroetan egonaldiak egiteko beken eta laguntzen kopurua.	5	5
Estatuko unibertsitate-zentroetan graduondoko ikastaroak egiteko emandako beken eta laguntzen kopurua.	45	46
Atzerriko unibertsitate-zentroetan graduondoko ikastaroak egiteko emandako beken eta laguntzen kopurua.	5	0
Jasotako prestakuntza beraien lanposturako eraginkorra izan dela uste dutenen ehunekoa. *Prestakuntza-jarduera 2025ean amaitzen denean baloratuko da (ekaina-abendua)	>%75	(*)
Familia eta komunitateko medikuntzaren garapena sustatzeko diruz lagundutako prestakuntza-jardueren ehunekoa.	>%20	20%
Osasunean genero-desberdintasunak murrizten laguntzen duten prestakuntza-jardueren ehunekoa.	>%20	>%20

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Euskal autonomia erkidegoko osasun-zientzietako espezialitateetan egoiliarren prestakuntza-aldian dauden profesionalen kanpoko errotazioetarako laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2025eko uztailaren 8koa, Osasuneko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko osasun-zientzietako espezialitateetan egoiliarren prestakuntza-aldian dauden profesionalen 2025eko ekitaldiko kanpoko errotazioetarako laguntzen oinarriak ezarri eta deialdia egiten duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

Deialdia:
AGINDUA, 2025eko uztailaren 8koa, Osasuneko sailburuarena (EHAA, 164. zk., 2025/09/01ekoa)
Emate-ebazpena:
EBAZPENA, 2025eko azaroaren 19koa, Osasuneko eta Eraldaketa Digitaleko sailburuordearena (EHAA, 241. zk., 2025/12/15)

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

2025ean hasitako EAEko langile egoiliarrei kanpoko errotazioak egiteko laguntzak ematea.
Kanpoko txandakatzeek Osasun Saileko Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritzaren baimena izan beharko dute, otsailaren 8ko 183/2008 Errege Dekretuaren arabera. Errege-dekretu horrek osasun-zientzietako espezialitateak zehaztu eta sailkatzen ditu eta osasun-prestakuntza espezializatuko sistemaren zenbait alderdi garatzen ditu.
Laguntzen helburua da EAEko egiaztatutako edozein zentrotako langile egoiliarrak Espainiako zentroetara edo egiaztatutako edo ospe handiko atzerriko zentroetara mugitzea erraztea eta sustatzea, zentro horien prestakuntza hobetzeko.
Era berean, aurreko paragrafoan aipatutako aldi baterako lekualdaketei eta egonaldi laburrei lotutako gastuak partzialki finantzatzen lagunduko dute.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2025eko ekitaldirako deialdiaren zenbatekoa 100.000 eurokoa izan zen (50.000 euro 2025eko aurrekontuaren kargura eta 50.000 euro 2026rako konpromiso-kredituen kontura).

Azkenik, esleitutako zenbatekoa 44.400 euro izan zen, aurrekontuan jasotakoaren % 44,4.

Guztira, 67 laguntza eman dira, eta guztira 101 eskabide aurkeztu dira. 40 laguntza eman ziren estatuko destinoko zentroetan txandakatzeak egiteko, eta 28 laguntza beste herrialde batzuetan txandakatzeak egiteko (Eskozia, Kuba, Kolonbia, Puerto Rico, Alemania, Peru, Frantzia, Argentina, Erresuma Batua, Japonia).

Lurraldearen eta urtearen araberako banaketa honako hau da:

Lurraldea	Onuradunen kop	2025eko ekialdea	2026ko ekialdea	Guztira
Araba	9	2.500,00	2.500,00	5.000,00 €
Bizkaia	55	19.170,00	19.170,00	38.340,00 €
Gipuzkoa	3	800,00	800,00	1.600,00 €
Guztira	**67**	**22.470,00 €**	**22.470,00 €**	**44.940,00 €**

27 eskaera ukatu dira. 7k atzera egin dute; 5ek bikoiztasunagatik eta 2k prozeduragatik. Ukatutako eskabideen artean, adierazi behar da eskaera batzuek hainbat arrazoi dituztela ez betetzeko. Bestalde, 3 gora jotzeko errekurtso aurkeztu dira (2 ezeztatuak eta 1 baieztatuak).

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Atzerriko zentroetan kanpoko errotazioak egiteko emandako laguntzen kopurua.	25	27
Estatuko zentroetan kanpoko errotazioak egiteko emandako laguntzen kopurua.	50	40
Osasunaren arloan genero-desberdintasunak murrizten laguntzen duten diruz lagundutako kanpoko errotazioen ehunekoa.	>20%	>20%

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Euskadiko osasun-sistemako langileek agindutako tratamendu medikoak betetzea errazteko laguntzak, 2024ko eta 2025eko urteetakoak

2.- Araua

447/2013 DEKRETUA, azaroaren 19koa, Euskadiko Osasun Sistemako langileek agindutako tratamendu medikoak betetzea errazteko laguntzak arautzen dituena.

247/2017 DEKRETUA, azaroaren 14koa, Euskadiko osasun-sistemako langileek agindutako tratamendu medikoak betetzea errazteko laguntzak arautzen dituen Dekretua aldatzen duena.

16/2019 DEKRETUA, otsailaren 5ekoa, zeinaren bidez bigarrenez aldatzen baita Euskadiko osasun-sistemako langileek agindutako tratamendu medikoak betetzea errazteko laguntzak arautzen dituen dekretua.

AGINDUA, 2025eko apirilaren 8koa, Osasuneko sailburuarena, agindutako tratamendu medikoak betetzea errazteko 2024ko eta 2025eko laguntzak emateko deialdia egiten duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

Arauak:

447/2013 DEKRETUA, azaroaren 19koa
(https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2013/11/1305170e.pdf)

247/2017 DEKRETUA, azaroaren 14koa
(https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2017/11/1705522e.pdf)

16/2019 DEKRETUA, otsailaren 5ekoa
(https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2019/02/1900707e.pdf)

Deialdia:

AGINDUA, 2025eko apirilaren 8koa, Osasuneko sailburuarena, agindutako tratamendu medikoak betetzea errazteko 2024ko eta 2025eko laguntzak emateko deialdia egiten duena
https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/04/2501840e.shtml

Dirulaguntza emateko ebazpena:
https://www.euskadi.eus/diru_laguntza/2025/erraztutako-mekikamentu-laguntza/web01-a2inform/eu/

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Dirulaguntzen programa honen helburua da gaixotasun- eta premia-egoera objektiboan dauden pertsonak Euskadiko Osasun Sistemako langileek agindutako eta finantzaketa publikoa behar duten tratamendu medikoetara atxikitzea erraztea.

Hala badagokio, agindutako tratamendu mediko bat betetzearen ondorioz ordaindu dituzten zenbatekoak ordainduko dira, finantzaketa publikoa behar duten tratamendu farmakologikoei, produktu dietetikoei eta efektu eta osagarriei dagokienez.

Deialdi honetako laguntzen subjektu izango dira gaixotasun- eta premia-egoera objektiboan dauden pertsonak, baldin eta 447/2013 Dekretu finkatuaren 3.1 artikuluan adierazitako baldintzak betetzen badituzte. Hona hemen baldintza horiek:

- Osasuna babesteko eta osasun-arreta jasotzeko eskubidearen titularrak, Gizarte Segurantzako pentsiodunak badira, urtean 18.000 eurotik beherako diru-sarrerak badituzte eta Euskadiko Osasun Sistemak bermatzen duen banako osasun-txartelaren titularrak badira.
- Osasunaren babeserako eta osasun-laguntzarako eskubidearen titularrak, legezko langabezia-egoeran badaude, urtean 18.000 eurotik beherako diru-sarrerak badituzte eta Euskadiko Osasun Sistemak bermatzen duen banako osasun-txartelaren titularrak badira.
- Osasunaren babeserako eta osasun-laguntzarako eskubidearen titularrak, diru-sarrerak bermatzeko errenta laneko diru-sarrerak osatzeko errentaren modalitatean jasotzen badute eta Euskadiko Osasun Sistemak bermatzen duen banako osasun-txartelaren titularrak badira.
- Aurreko hiru ataletan aipatzen diren osasunaren babeserako eta osasun-laguntzarako eskubidearen titularren onuradunak, baldin eta Euskadiko Osasun Sistemak bermatzen duen banako osasun-txartelaren titularrak badira.
- Espainian egoiliar gisa erregistratuta edo baimenduta ez dauden eta Espainiako nazionalitatea duten pertsonen baldintza berberetan osasuna babesteko eta osasun-arreta jasotzeko eskubidea duten atzerritarrak, eskubide hori aitortzeko Euskal Autonomia Erkidegoak emandako egiaztagiria badute.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2025. deialdiko eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, 35.219 eskaera aurkeztu dira guztira (arazketarik egin ezean).

2026ko martxoan, EAEko herritarrek aurkeztutako eskaeren % 100 kudeatu dira. Data horretan, 2025eko ekainaren 10a baino lehen aurkeztutako eskaerak ebatzi dira, eta data horren ondoren aurkeztutakoen zati handi bat, hau da, 34.383 eskabide ebatzi dira, % 75ek aldeko ebazpena eman dute, eta % 25ek kontrakoa.

Hona hemen 2025ean emandako aldeko ebazpenen zenbatekoak: 2024ko deialditik 1.323.065,76 €izan ziren (bigarren aldia); eta 2025eko deialditik 531.723,90 € (lehen aldia).

2025eko ekitaldiko aurrekontua gauzatzeari dagokionez (2024ko deialdiaren bigarren aldiko ordainketak eta 2025eko deialdiaren lehen aldikoak barne), 1.833.014,38 euroko obligazioak aitortu dira, hau da, aurrekontu eguneratuaren % 96,32 eta baimenduaren % 96,32.

Uste da 2025eko deialdiaren aldeko ebazpenek aukera emango dutela, alde batetik, gaixotasun- eta premia-egoeran dauden 29.000 pertsona inguruk Euskadiko Osasun Sistemako langileek agindutako tratamendu medikoa betetzen jarraitzeko aukera izateko, eta, bestetik, agindutako tratamendu medikoen jarraipena ez egitearen ondoriozko balizko ondorio negatiboak saihesteko. Izan ere,

tratamendu horien balorazio positiboa irizpide ekonomikoei ez ezik, bestelako irizpideei ere erreparatu behar zaie, hala nola gizarte-ongizateari, bizi-kalitateari eta abarri. Horregatik guztiagatik, ikusten da programa horrek eragin positibo handia duela. Aurrekontuan eguneratutako zenbatekoa: 1.903.143,35 € Gauzatutako zenbatekoa: 1.833.014,38 €

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Aurreikusitako eskaera kopurua	45.000	35.219